

**AITA HIPOLITO, EUSKALDUN GOGOANGARRIA  
(1892-1976)  
(HAREN HERIOTZAREN 25. URTEAN)**

1976ko urtarrilaren 25a gogo-gogoan dogu karmeldar euskaldunok. Gainerako euskaltzale askok be halan izango dabela uste dogu. Egun horretan joan jakun A. Hipolito, karmeldar argi eta euskaldun gogoangarria, edurtza itzel batek haren azken egoitza izan zan Markina-Xemein eta Euskal Herria zuri-zuri janzten zituala.

Ia oharkabean 25 urte eta apur bat gehiago joan dira ha hil zan ezkerro eta, *Karmel* aldizkari honetan, hori eta gehiago zor deusagulakoan, haren bizitzari eta itxi eban lorratz sendoari begira jarri gara. Izan be, noizbehinka baino izaten ez diran horreetariko dogu A. Hipolito; zeruak Euskal Herriari eta Karmeldarren Ordenari eginiko opari aparta.

Labur baina alde askotatik hartu nahi geunke haren irudia, euskal irakurleari gogoetarako eskeintzeko. Begirada arin batez aberats, interesgarri eta harrigarri be egiten jaku haren bizitza. Ordena barruan gobernuko gizona izanik, Euskal Herritik kanpo, batez be Erroman, hainbat urte bizi beharra izan eban. Halan be oso gazterik barruan sartu jakon euskerari berea emoteko abagunerik galtzen ez ebana genduan. Eiho dan denboraren bihotzean, arratiar honen irudi agurgarria ageri jaku, arlo zabal eta askotarikoak hartzen dituana. Guk, handik eta

hemendik begira, albait ondoen berregin eta berreskuratu nahi izan dogu urteen joan-etorri errukibakoak ostu deuskun gomuta hori. Dana dala, aldizkari honen orrialde xume batzuetara moldatu beharrez, ezin nahi geunken baizen zabal eta luze agertu haren biografia.

Haren bizitzari begiratuta, beste ezaugarri batzuen artean, hiru honeek azpimarratuko geunkez: legegizona, gobernuko gizona Karmeldarren Ordena barruan, euskaltzalea. Berezko eban joeratik barik, beste bide batzuetatik eroan ebala zoriak, esango geunke. Hau da, A. Hipolitok euskera eta euskal kultura zituan bere-bereak, baina bere bihotzeko bokazio hori, neurri baten, albora itxi beharra izan eban, goragoko bokazio bati ekiteko: Karmeldarren Ordena barruan gobernuko lanari ekiteko. Beraz, euskal letrak lantzeko ez eban harek beste askok izan daben erarik izan. Aldats gora ibili beharra bai. Bihotzak eskatuta, bere kontura eginahalak eginda, zirrikitu guztiez baliatuta burutu ahal izan zituan euskal lanak. Gainera, garai txarrak ziran hareek. Gerratearen mamua ageri da haren bizitzaren erdian. Guztia galtzen, hondatzen eta desegiten dauana. Halako hondamenaren ostean, tamalgarri agertzen da gure kulturaren irudia. Gerraren haginkadak eta erpakadak alde guztietan igarri ohi dira... Egia esan, A. Hipolitori berari ez jakon egokitu, ondorengo belaunaldiko erlijioso batzuei legez, gudarien kapilau izatea eta kartzelan urteak egin beharra. 1924a ezkerro, Erroman zan, *Angelicum* deritxon unbertsitatean zuzenbide kanonikoa sakontzeko nagusiak hara bialduta. Aldi haretan sortu eban Ordenak bere unibertsitatea Erroman eta A. Hipolito hango lehenengo irakasleetarikoa izango zan. Baina gerraren erpak luzeak dira eta urruneraino heltzen da haren eragin kaltegarria... Espainiako gerra zibila sortu zanean, Erromatik alde egin beharra izan eban. Frantziara bialdu eben eta han bizi izan zan Espainiako gerra zibilak eta bigarren mundu-gerrak iraun eben artean. Guztiz 10 urte, karmeldar gazteen irakasle izanaz. Gure zeanuritarrak ez eban probatu Frankoren kartzelarik, baina honen jendearentzat areriorik bil-





durgarrienetariko zana, beti zelatapean eta begi-bistan euki beharrekoa. Beste aldetik, Nafarroako San Joakin Probintziaren zatitzea be orduantxe jazo zan, Burgosko San Joan Gurutzekoaren Probintzia barria sortuz. Beraz, ez zan giro gozoa inondik be: gerraren ondorioak non-nahi, bildurra, kartzela, atzerria, galtzaileen hizkuntza eta kultura zapalduak... Hona A. Hipolitoren bizitzako ingurumaria. Baina sarrera antzeko ikuspegi orokor honen ondoren, goazen begi zoliagoz hari begiratzera.

### **Haren bizitzako gorabeherak**

Bere paperen artean, balio handiko idazki bat eukan: bere bizitzako gorabeherak sei orritan eta euskeraz idatzita. "*Nire bizitzako gora-bera batzuk*" dau izenburua. Hortik jaso ditugu ondorengo argibiderik gehienak, beste idazlan batzuetakoekin osotuz.

Alejandro Larrakoetxea Agirrezabala eritxon. Guretzat, A. Hipolito. 1892ko otsailaren 26an jaio zan Zeanuriko *Altxagutxi* baserrian, Undurraga auzoan; geroago Gorbeia mendiaren maldetan dagoan *Atxondo* baserrira aldatuko zan Larrakoetxea Agirrezabala familia. Jaio zan egun berean bateatu eben.

Sei urte zituala hasi zan eskolara eta beste sei urte egin zituan herriko eskolara joanaz. Irakurten eta idazten ikasi ostean, kristau-ikasbidea izan ezik, gainerako guztia erderaz zala eta, esateko ezer ikasi barik amaitu ei zituan urteok. Dana dala, oroimen oso ona izanik, ulertzen ez ebana be, behin ikasi ezkeru, buruan gelditzen jakon; esate baterako, gaztelaniazko aditz-jokoak.

Hamahiru urte zituala, 1905eko abuztuan, fraide karmeldar izateko asmoz, Nafarroako Alesbesera (Villafranka) joan zan, karmeldarrak erriberako herri horretan eukan ikastetxera. Beste sei lagunekin joan zan eta hareetariko batek bakarririk iraun eban, gure Larrakoetxearekin batera, karmeldar bizitzan; beste hau be zeanuritarra. Ez deusku bere idazkian haren ize-

nik emon; barri hau bakarrik: *“Mexikon aurten il da nire lagun ori”*. Euskerazko idazki hau Erroman idatzia da, 1975eko maiatzaren 2ko dataz.

Alesbesen lau urteko ikasketak hiru urtean eginda, Larreako nobiziaduan sartu zan, 1908ko ekainaren 30ean abitua harturik. Hipolito Familia Santuarena izango zan Ordena barruan haren izen barria. 1909ko uztailaren 1ean egin eban bere profesia.

Profesia egin barriak Markinara joan ohi ziran urtebeterako, filosofia ikasten hasi orduko Alesbesen hasitako ikasketak osoztera, baina Hipolito eta harekin batera profesia egindakoak, Markinara barik, Larreatik Burgosera bialdu zituen. Han ikasiko eben filosofia. Hiru urteko ikasketak, baina filosofiagaz batera erretorika be ikasi behar, Markinan egin ez eben ikasturtearen orde, eta lau urte izango ziran guztira. Filosofia eta erretorikaz gainera, irakasgai honeek ikasten zituen: matematika, fisika eta kimika, geografia, historia unibertsala, hizkuntzak (grekoa, frantsesa eta ingelesa). Ingelesa berba egiten moldatzeko bestean ikasi eban. Burgosen hiru urte eginda, 1912ko irailean Gasteizera aldatu ziran ikasleak, fisika eta kimika ikasteko baliabidez ondo hornidurik egoalako hango ikastetxea. Teologiako lehenengo urtea be bertan egingo eben.

1914ko udan Begoñako Karmelora aldatu ziran teologia ikasteko. Berez lau urte ziran, baina Gasteizen burutu eben lehenengoa. Teologiaz gainera, Elizaren historia eta hebreerea ikasten ziran. Hebreeran ez ebela ia ezer ikasi esango deusku berak, irakasle bi bata bestearen jarraian izanik, lehenengoak irakatsitakoa lorrindu baino ez ebalako egin bigarrenak: *“Baña irakasle bi izanda, bata bestearen urrengo, bigarrenak lehenengoak irakatsiaren aurka ekin baño egin ez, ezer ikasi barik amaitu gendun ikastaroa”*.


Teologiako hirugarren urtea amaiturik, 1916ko ekainaren 17an egin zan abade Gasteizen bere ikaskideekin batera. Hurrengo urtean, 1917ko uztailaren lehenengo astean, amaitu



zituen ikasketak Hipolitok eta honen lagunak. Baina ikasteko buru argikoa eta dohain handien jabe ikusirik, Ordenako nagusiak berarizko ikasketak egiteko begiz jota euken Larrakoetxea gaztea. A. Ezekiel Bilbao, Zornotzako semea, zan aldi haretan Probintziala, lehentxuago Ordenako Jenerala izana, eta honek itaundu ei eutsan, ea aurrerantzean zer ikasi nahi leuken. Hipolitok, duda-mudatan ibili barik: *bizkuntzak*. Baina A. Ezekielek, antza, zirikatzearren zirautsan hori, gauzak ondo pentsaturik zituan eta: *Zuok, arratiarrok, legeetan onak zarien ospea dozue, eta nik legegizon izan zaitezala erabagi dot.*

1916tik 1917ra bitartean aleman hizkuntza ikasteari ekin eutsan. Era-erara etorri jakon eta ez eban abagune hori alperrik galdu. Begoñako Karmelon bizi zala, auzoan irakasle on bat izatea egokitu jakon. Sarri-sarri joaten ei zan komentura lan egitera. Jaiotzez vienarra zan eta Bilbon bertan be bere gurasoekin aleman berba egiten ei eban. Gizon argi eta askotarakoa zala dinosku Hipolitok berak. Oso pozik egiten eban irakasle-lana. Negu eta udabarriko iluntze guztietan komentura bertara etorten jakon eskolak emotera. Ez dau haren izenik aitatzen... Gramatika eta alemanez irakurten behingoan ikasi ei eban eta nahiko aurreratua eta hizkuntzan sartu-sartua ikusi ebanean, Grim Anaien Ipuinak Espainiako erderara itzultzeko egitekoa ezarri eutsan. Geroago, berak beratara, euskerara itzuli zituan ipuinok eta Bilbon Alvarez Anaien moldiztegian argitaratu, Kontxita Gangoitia andra abertzaleak ordainduta.

1917an argitaratu eben Erroman zuzenbide kanoniko barria. Horixe irakatsi beharko eutsen teologo gazteei, ikasketak amaitu barri, Begoñako Karmeloko irakasle izendatu eben-eta. Urte horretan zuzenbide kanonikoa ikasi beharrik ez euken eta, beste irakasgai batzuetan ordezeko irakasle izan zan. Liturgia eta patrologia emoten zituan, baina noizean behin bakarrik. Antza, lehenengo urte horretan, astirik nahikoa eban bere gogoko gauzatxuetarako. *“Garai orretan euskereak maiteminduta bizi nintzan. Euskereari buruzko idazti ta idatzi*



*guztiak iruntsi bear*” dino berak. Aditz-jokoen egiturak harriturik eta liluraturik eukan eta udako oporretan Begoñako gazteei irakastea erabagi eban. Hurrengo urtean, 1918an, zuzenbide kanonikoko irakasle izendatu eban eta Begoñan eta Kalahorran emon zituan eskolak; Begoñan 1918tik 1922ra arte eta Kalahorran 1922tik 1924ra arte.

Euskaltzaletasuna barru-barruan sartua eukala esan dogu goratuago. Horrek eraginda, zuzenbide kanoniko barria euskerara itzuli

eban eta baita Olabideren Itun Barria bizkaierara moldatu be. Horrez gainera, erara etozen gaiak erabiliaz, orduko euskal aldizkarietan idatzi ohi eban noizean behin “Legoaldi” izenordeaz. Erderazko aldizkarietan be idazten eban; esaterako, Burgosko *Monte Carmelo* aldizkarian. Aldizkari honen zuzendariak, behinola A. Hipolitoen irakasle izanak, eliz legeei buruzko idazlanak eskatzen eutsazan. *“Ezetzik ezin esan eta an argitaratu ziran nire lantxo batzuk”* dino aitaturiko idazki biografiko horretan.

Gorago aitatu dogunez, 1924ko udagoienez Erromako “Angelicum” deritxon unibertsitatean sartu zan zuzenbide kanonikoa sakontzeko. Urte biren buruan amaitu zituan ikasketak eta doktore titulua lortu (Doctor Iuris). Holako tituluak har-

tzea debekatua zan artean karmeldarren legeetan, baina orduan tituludunen beharra egoan eta A. Hipolito izan zan doktore titulua lortu eban lehenengoa. 1926an izan zan hori.

Hain zuzen be urte horretan erabagi eben Ordenako bu-ruak Karmeldarren nazioarteko unibertsitatea Erroman egitea eta Larrakoetxea hango irakasle izateko lotu eben. Baina lehenengo urteetan ez eukan zuzenbide kanonikoa irakasterik eta astitsu ebilen gure gizona. Horregaitik, urte bian "Rota Romana"ren eta "S. Congregationis Concilii" institutu- etako eskolak hartzera joan zan. Benetan irakasle bikainak izan zituala eta asko ikasi ebala dinosku berak.

Ordenako Jeneralak sortu barri eban aldizkari hau: *Analecta Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*. Hipolitori han idazteko eskaria egin eutsan eta halantxe egin eban.

Laster izango eban bere zuzenbideko jakituria zertan erabili. 1928ko ekainaren 13an Ekialdeko Elizarako Kongregazio Santuaren aholkulari izendatu eben. Ezkontza-auziak ziran gehienbat ebatzi beharrekoak. Ezkon-loturaren aldeko zeregina leporatu eutsen batez be. Baina ez eban luzaro iraun lan- gintza honetan. Ekialdeko Elizaren zuzenbide kanonikoa harri- tzea eta arautzea erabagi eben, Erromako Elizan egin zan an- tzer. Eta egiteko hau beteteko, Aita Santuaren mendeko batzorde bat sortu zan eliz legelariz osotua eta batzorde honi aholku emoteko legeetan jakitunak ziran lau laguneko taldea izendatu eben; honeetariko bat A. Hipolito. 1930eko maiatzean jaso eban izendapen hau. Astero batzar bi egin ohi zituen. Batzar horreetarako ebazkizuna prestatzea eban bere egitekoa A. Larrakoetxeak. Lan astuna zala dinosku berak. Ekialdeko Elizen legediak zehatz-mehatz arakatu behar zituan. Lan honek bost urte eroan eutsezan. Lege horreek kode barri baten sartu behar ziran. Lau kardinal ez osoturiko batzorde bat egin zan eta batzorde horren aholkulariak, ekialdeko Eliza bakotzeko bana eta ordura arte lanean ziharduen Erromako Elizaren lau aholkulariak. Oraingoan be, astean bi bider batzen ziran eta



gure Hipolitoren egitekoa lehen egiten eban bera: batzarretako ebazkizunak prestatzea.

Behin baten, Vatikanoko baratzetan egoan Etiopiako seminarioa bisitatzera bialdu eban geroago kardinal izango zan Amleto Yoane Cicognanik. A. Hipolitok emon eban bere ebazpena eta hauxe izan zan: seminarioko errektorea eta errektoreordea euren karguetatik kentzea.

Gorago esan dogunez, 1936an Espainian sortu zan gerra zibilak Erromatik alde egin beharra ekarri eutsan. Frantziara bialdu eben nagusiak. Garai honetako gorabehera edo eztabaida baten argi egin beharra izan eban A. Hipolitok. A. Bruno karmeldarrak *Etudes Carmelitaines* izeneko aldizkaria argitaratzen eban. Aldizkari horretan A. Grazianen, Santa Teresaren laguntzaile maitearen, aurkako zerbait argitaratu zala eta, irakurle baten erantzun garratza jaso eban. Gorabehera edo eztabaida horretan onezkoak egin eta arazoa argitzea gure gizonaren gain itxi eben. Holan sartu zan Karmeldarren Erreformako hasiera hareen barru-barruan, ikerketa juridiko-historiko sakonak eginaz. Harrezkero ez eban gai hori sekula be alde batera itxi; geroago eta gehiago sakonduaz joian; lehenengo Madrileko Artxibo Nazionalean, eta geroago, Erroman, Vatikanoko Artxiboetan.

Frantzian hamar urte emon ondoren, Altzoko herritxu maitea joan zan. Azkenean be! Bere Euskal Herrian egoan. Pozez zorutzen. Gipuzkera ikasteko abagune ezin hobea eukan. Domeka eta jaiegun guztietan bere kontura izaten eban meza-ko hitzaldia. Garai honetan Madrileran joan beharra izan eban, baina hango egotaldi laburra kendu ezkerro, beti jarraitu eban Altzon.

Altzon egoala, Nafarroako San Joakim Probintziako kapitulu egin zan eta A. Hipolito Probintzial hautatua izan zan. Altzotik Gasteizera joan zan bere karguaz jabetzeko. Gogoeta hau egin eban bere artean: hainbeste urte kanpoan, Erroman eta Frantzian, egin ostean ez ebalan gobernatu behar eban bere

At, contra ac tenet Cuiusdam cum Lega, non  
 potest prius ipsum in eam ita extendendum  
 ut deroget principio statuto in can. 23, sine  
 ulla exceptione. Ergo in dubio cum hoc par-  
 ticulari deroget legi etiam generali procedenti,  
 standum pro iustitia. Sublimi non potest vincere  
 certitudinem.

Tit. V

De superiore potestate coactivam habente.

Ordo materiae: Tit. continet 6 canones: 2220-2225.  
 Determinat quis possit p. eod. ferre (c. 2221, ~~2221~~  
 2221); quid possit Superior in ademptis extraor-  
 dinariis, a legislatore non provisus (2222); de indice  
 in applicandis poenis (2223); de numero poenarum (c. 2224);  
 de forma poenas infligendi (2225).

Can. 2220

Obiectum: auctor poenarum.

§ 1. advectoria. Quia poenarum communitio est  
 necessarium complementum ~~et~~ irrogationis legis  
 praescriptae, ut eius efficacia executione haberi pos-  
 sit. Sine, autem humana malitia, confunderetur.

At leges ferre vel praescripta imponere publici  
 iuris, prout in eam considerantur, solum possunt  
 qui potestate iurisdictionis pollent et quidem  
 in foro coeterno. Haec requirunt poenas canonicae

Aita Hipolitoaren eskuizkribua: lege-kanonikoen azalpenak



Probintzia ezagutzen. Nafarroako San Joakim Probintzia oso zabala zan; Euskal Herriko Hegoalde osoan, oraingo Kantabria eta Errioxan, Portugalen, Txilen, Perun, Kolonbian, Guatemalan, Panaman, Indian... zehar zabaldua egoan. Probintzia osoa bisitatu nahi eban, etxerik etxe banan-banan, baktxaren egoera berta-bertatik ezagutuaz. Baina Frankoren gobernuak begi-bistan izan nahi eban eta debekatu egin eutsan Espainiako Estatuaren mugetatik urtetea. Debeku horri zor eutsala bizia esan ohi eban. Izan be, Ameriketako komentuar bisitatzeko Lisboan hartu behar eban hegazkina suak hartu eban, Brasilen gainean hegaz joiala, eta guztiak hil ziran.

Erromak kontu handiko egitekoak jarri zituan haren ardura-pean. 1951n Fatimako Ama Birjina agertu ei jakon ahizta Luzia bizi zan Coimbra-ko Karmeldar Lekaimen komentuan. Gaur egun be hantxe bizi da. Ia 100 urte izango ditu honezkero karmeldar lekaime agurgarri honek... Haren nagusiak, etxeko bakea galtzen ebala esanaz, salakuntza sartu eban haren aurka Erroman. Zer jazoten zan jakiteko eta ezer okerrik balitz zuzentzeko, A. Hipolito bialdu eben hara. Gauzak ikusi eta aztertu ondoren, okerron sustraia komentuko nagusiagan beragan egoala ohartu zan, bere kargua ondo beteteko besteko zentzunik ez eukalako; eta Erromatik ekarren ahalmenez, kendu eban nagusi hori bere kargutik eta beste bat jarri haren lekuan. Harrezkero bake iraunkorra izan zan komentu haretan. Garai berean ezarri eutsen beste egiteko bat be Erromatik: Monte Estorilgo karmeldar lekaimeen bisita kanonikoa.

Urte horretan, 1951n, entzute handiko batzarra izan zan Avon-en. Gaia: "Direction spirituelle et psychologie". Bere erlijiosoen artean holako batzar baten lotsa barik agertzeko moduko pertsona jantziak bazituala-eta, beste aldetik, gai horretan adituak ziran beste batzuekin hartu-emonia izateko abagunea harei eskeintzearen, aurrera egitea otu jakon. Horretarako Jeneralari baimena eta laguntza eskatu eutsazan. Berak dino, karmeldarrak holako estudioetarako ez zituela askok trebetzat



joten, baina lan ona egin ebela: *“gure lanok dakarzan liburua beingo-beingoan saldu zan”*.

Bere Probintzial karguko hiru urteak agortzean, barriro be Altzoko bere txoko maitera jo eban. Baina han egoala, beste egiteko bat ezarri eutsen Erromatik: Gaztela eta Burgosko karmeldarren Probintzia erlijiosoan arteko mugak aldatu behar ete ziran eta, aldatzekotan, zelan aldatu aztertzea. Auzi horretan zerikusia eben guztiei itaundu, erantzunak entzun eta idatziz jartea zan haren egitekoa. Epaia emoterik ez eukan, batzuk eta besteak esaten eutsena idatziz ezarri baino.

Zeregin hori amaitutakoan Altzori agur egin behar, Begoñako teologiako ikastetxean zuzenbide kanonikoa azaltzeko irakasle izendatu ebelako. Han egoala, 1953ko abenduaren 21ean, eguerdi-eguerdian, Erromatik azal lodiko idazkia. *“Azaletik ikusi orduko barruan zer ekarren igarri”* dino berak. Ez eban zahaldu bazkal osterarte. Haren susmoa zuzena zan: Karmeldarren Kataluniako Probintzia bisitatu behar eban eta laster gainera. Kataluniako Probintzialak bere karguaren hirugarren urtea amaitzeko zala, erlijioso-abitua eskegi eta alde egin eban. Horregaitik, hango Probintziako kapitulua al bait lasterren egin behar zala eta bizkor ibilteko... Neguaren bihotzean batera eta bestera ibili beharra. Negu gogorra urte hare-takoa; Mallorkan bertan be izotza ei egoan. Bestela, alde guztietan abegi onez hartu ebela dinosku. Harei bere esker ona agertzearren, bere Probintziako hiru erlijioso Kataluniako Probintziara bialtzeko eskaria egin eutsan Ordenako Jeneralari. Baietza jaso eban harengandik eta hiruretariko bat bertan gelditu zan betiko.

1954an Burgosko Probintziako karmeldarrak Ekuadorren zitu-  
tuen misio biak eta gainerako etxeak bisitatzeko agindua jaso eban Ordenako Jeneralagandik. A. Hipolitoren bisitaren ondorioa, Esmeraldas-ko misio ederra beste misiolari batzuen esku iztea izan zan.



*Aita Hipolito, Probintzial zala, Begoñako Karmeloko Karmeldarrakin, jarrita, erdian.  
(Aita Lino Akesolo ere agertzen da, zutunik ezkerretik bigarrena)*

1955. urtean Hondarribia, Irun, Albazete eta Gasteizko lekaime karmeldarren ardurea ezarri eutsen. Hipolitok berak ez dau emoten egiteko horren zehaztasun handirik. Bestalde, esku artean izan dogu, Antonio Unzuetak laster argitaratzeko asmoz eginiko lan historiko bat. Haren testuaren paragrafo batek holan dino hitzez hitz: *“Este monasterio [Hondarribikoa] pertenecía al grupo de los cuatro monasterios que nacieron del primitivo de Fuenterrabía, y que estuvieron pensando en formar una Federación entre ellas. Una crisis interna obligó a la Santa Sede a enviar como Visitador Apostólico al P. Hipólito Larrakoetxea, quien resolvió el problema a satisfacción de las monjas. Hoy la comunidad pertenece, como las otras tres, a la Asociación de S. Joaquín de Navarra”*. A. Hipolitoren ardura-pean izan ziran urte batzuetan. Haren eraginez, lehengo

Hondarribiko komunitatea Nafarroako Donamariara aldatu zan eta Irungoa Hondarribian Mendelu-Zar auzoan eregi zan komentu barrira.

1956. urtean Ordenako Jeneralaren, A. Anastasioren, izenean "Legionarios de Cristo" izeneko kongregazioak Ontanedan eukan ikastetxera joan zan bisitari legez.

1957an, Begoñan egin zan Probintziako kapituluan, A. Hipolito bigarrenez Probintzial hautatua izan zan. Hiru urte honeetan, Portugalera izan ezik, ez zala atzerriko etxeak bisitatzera joan, dino berak.

1961. urtean, Karmeldarren Kapitulu Jeneralean, Jeneralaren bigarren aholkulari hautatu eben. Horrek, sei urtean behintzat, Erroman bizi beharra ekarri eutsan. Jeneralaren ondoan egon behar eban, harek edozein aholku eskatu ahala erantzuteko. Baina astialdi luzeak izaten zituan eta bere gogoko lan batzuei ekiten eutsen. Santa Teresak Karmeldarren Ordena zaharra erabarritzeko egin eban lanari buruz Vatikanoko Artxiboan legokezan dokumentuak bilatu eta aztertzea erabagi eban, lehendik Madrilgo Artxiboan hasita eukan lana osotzeko asmoz. Sei urteotan, astegun guztietan eguerdi aurrea Vatikanoko Artxiboan emoten eban. Aurkitu ahala, eskuz kopiatzen zituan, gero arratsaldean etxean makinaz berridazteko. Horrectariko agiri batzuk *Monte Carmelo* aldizkarian argitaratu ziran. Holako dokumentuak argitaratzeko Erroman bertan sortu zan institutu batek atera zituan liburu mardul bi 1974an, eta hasi baino ez zala egin dino. Ez dau esaten bera izan zanik institutu horren bihotz eta eragile, baina bere ondoan izan zituan Teresianum Unibertsitateko karmeldar irakasle eta ikasle gazteak gure Larrakoetxea dauke erakunde horren aitatzat. "Institutum Historicum Teresianum" deritxo. Ildefonso Maria Moriones Nafarroako Liedenako semeak, holan dino hitzez hitz *Euzkadi y el Vaticano* bere liburuaren kontraportadan: "*Siguió el P. Hipólito investigando, y con su aportación documental contribuyó a la fundación del Institutum Historicum*



*Teresianum de Roma (1973), cuyos miembros se honran de recoger la antorcha de este gran hombre que supo unir a una vida interior intensa una admirable asiduidad en el trabajo, frutos sin duda de la fe viva y de la tenacidad proverbial que había mamado en su caserío de AIXONDO”.*

1962tik 1963ra bitartean, Aita Jeneralaren aginduz, bisita kanonikoa egin eutsen Katalunia, Aragoi eta Valentzia eta Andaluziako Probintzietako karmeldarrei.

Ordenako Probintzialekin batera Karmel mendian egin eban batzarrean, Palestina ezagutzeko aukera ederra izan eban.

Berak autortzen dauanez, azken urteetan esku artean izan eban zereginetariko bat, aspaldidanik euskerara itzulita eukan zuzenbide kanonikoa berrikusi eta zuzentzea izan zan, “Kardaberaz Bazkunak” argitaratzeko asmoa eban eta.

Hauxe da, ikutu txiki batzuk gorabehera eta gaurko erara jarrita, harek bere euskerazko idazkian dakarren bere bizitzaren haria.

Ha hil ostean, Lino Akesoloren eta Julian Duñabeitiaren (Aita Pedro Mari) idazkiak agertu ziran. A. Pedro Marik Nafarroako San Joakim Probintziako Agerkari Ofizialean idatzi eban. Interesgarri, berak ohi dauanez. Karmeldar euskaldunen hil barritako idazlanik gehienak Aita Pedro Marik idazten ditu. Sarrera txiki baten ondoren, A. Hipolitoren beraren idazki hori dakar zehatz-mehatz gaztelaniara itzulita, eta amaitzeko, harek Markinako komentuan igaro zituan azken hilabete eta egunak kontatzen ditu. Lino Akesolok, guk dakigula, lau idazlan argitaratu zituan A. Hipolitori buruz; laurak, A. Larrakoetxea hil ondoren argitaratuak. Lehenengo biak ha hil eta laster, bata Donostiako *El Diario Vascoren* domeketako gehigarrian gipuzkeraz idatzita. “Aita Ipolito Larrakoetxea. Goian bego” dau izenburu. Bestea, barriz, gure *Karmel* honetan argitaratu eban bizkaieraz. Izenburu bera jarri eutsen bieie eta idazlanak be

antz-antzekoak dira. Hirugarren idazlana, Kardaberaz Bilduman argitaratu zan *Erromako Eleizearen Araudia* liburuaren atariko lantxua da, letra txikiz orrialde bat bete-betea hartzen dauna. Laugarrena, Simon Bolivarren omenez Bolibarren egin ziran jaien barruan, A. Larrakoetxeak 1927ko abuztuaren 14an egin eban hitzaldiaz da. Kasu honetan hitzaldia bera eta hari buruz Lino Akesolok eginiko iruzkinak datoz. Bestalde, Antonio Unzuetak idatzitako lan historiko batzuetan sarri agertzen da eta aitatzen A. Hipolito. Handi-handika eta ikuspegi zabalez hartu dogu haren irudia, horren ondoren, haren bizitzako gorabeherarik urtenenak gogoratu ditugu beraren idazkiari jarraituz. Orain, haren osoko irudia barik, hurragotik hartuta, haren nortasunaren ezaugarri batzuk agertzen ahaleginduko gara.

### **Gobernuko gizona**

A. Larrakoetxearengan estu-estu loturik ikusten ditugu legeetan aditua izatea eta Karmeldarren Ordenan gobernuko gizona izatea. Ez dogu esan nahi, Probintzial izateko edo agintaritzan goi-karguak izateko behar-beharrezkoa zanik eliz legeetan aditua izatea, baina bai oso kontuan hartzekoa. Izan be, A. Hipolitorengan horrek zerikusia izan ebana begi-bistakoa da. Izan zituan gobernuko karguak baino gehiago, Aulki Santuak nahiz Ordenako Jeneralak haren gain ezarri zituen zama astunak azpimarratu behar dira: bisitari kanoniko izanaz, haren gainera behin eta barrero etorri ziran ardua larriak. Holakoetan ez da nahiko legeetan jantzia izatea. Horrez gainera, legeak egoera zehatzetara, egoera gatx eta bihurrietara aplikatzeko, kontu handiz jokatu beharra dago. Gure gizonak aparteko sena eukan horretarako. Jakituna izanaz gain, trebea be bazan arazoei unean-unean behar eben ebazpidea emoteko.

A. Lino Akesolok be dohain hori azpimarratzen dau, ha hil barri zala, Donostiako *El Diario Vascon* idatzi eban idazlanean:

“Gure arratiarrak begi argi eta zorrotza zuen, nonbait, non-naiko istilluen korapilloak askatzeko edo nola ebaki antz emateko. Orregatik, beste ainbat egiteko zail leporatu zizkion Erromak an eta emen: Etiopiarren Ikastetxeko arazoak aztertu eta konponbidea jartzea; Portugaleko mojaetxe batzuetako (Fatimako Luzia bizi zanekoa eta) egoera zuzentzea; Ecuadorko Esmeraldas Misioko egoera konpontzea; gure inguruko moja batzuetako arazoak ere bai, eta abar. Burgosen, Kastillan eta Kataluñan ere Aita Santuaren eskubidez olako arazoetan ibillia da. Bere argiz Elizari emandako laguntzagatik, esker onezko ageria izan du oraintsu, Paulo Aita Santuak emanik”.

Gorago aitaturia izan da 1928an Ekialdeko Elizen auzietan, ezkontza-auzietan, izan eban egitekoa, baina pixka bat geroago, Ekialdeko Elizen zuzenbide kanoniko barria moldatzen izan ebana be. Aldi haretan, lege gaitan, hiru euskal izen entzuten ziran Erroman hots handiz: Larraona, Larrakoetxea eta Etxegoien. Larraona geroago kardinal izendaturia izan zan. Larrakoetxea eliz legeetan gorengo adituetarikoa zan Erroman. Bera izan zala, esan dogu, Karmeldar guztien artean doktore titulua lortu eban lehenengoa, artean titulu hori erabiltea debekaturik egoan-eta. Hori be hor dago! Legegizon zan aldetik hortxe itxiko dogu. Izan be, A. Larrakoetxearen alde hori beren-beregi aztertuko dauan idazlan bat argitaratzen da *Karmelen* ale honetan.

Aita Larrakoetxea ez zan egundo izan komentuetako priore. Izan zituan gobernuko ardurak goragoak ziran: Probintzial, eta Probintzialaren Aholkulari eta Jeneralaren Aholkulari. Gero, unean uneko egitekoak izan zituan: bisitari kanoniko hainbeste bider han eta hemen. 1933ko maiatzaren 5ean Gasteizen Kapitulua Probintziala egin zan. Bigarren botazioan A. Hipolito izan zan hautaturia. Baina Definitorio Jeneralak balio barik itxi eban hautaketa hau, 1927ko Konstituzioen 133. zenbakian oinarriturik. Zenbaki horren arabera, Ordenaren zerbitzuan Probintziazatik kanpo diran erlijiosoak hautagai izan leite-



kez, baina hautatuak izan ezker, balio barik itxi leiteke hautaketa hori, Ordenaren onak halan eskatu ezker: "*ob bonum commune Ordinis*". Beste botazio bat egin behar, ba. Oraingoan Aita Ezekiel Bilbao, Zornotzako semea, izan zan hautatua. Bosgarrenez hartzen eban bere gain Probintziaren ardurea. 71 urte zituan, baina hurua oso argi eban. Osasunez, oster, guztia beharrean.


A. Hipolito bi bider izan zan Probintzial: 1948tik 1951ra eta 1957tik 1960ra bitartean. Bietan be nahikoa buruhauste izango ebala uste dogu. Franko diktadoreak eta erlijioso batzuen hartean indarra hartuaz joian haren bandoko haizeak latz eta garratz hartuko eben bere agintealdi bietan. Lehenengo agintealdian jazo zan berak Portugalen hartu behar eban hegazkina suak hartu eta jaustea. Honetaz zehaztasun gehiago dakar Lino Akesolok goian aitaturiko *El Diario Vascoko* idazlanean:

"Gero ere, 1948an Euskalerriko karmeldarren nagusitza eman zitzaionean, ez zan dana bakea bere inguruan. Atzetik begiraleak (eta ez aingeruak) izan zituen luzaro. Eta bein, Ameriketako praille anaiak ikustera joan bear eta, Portugalen egazkiña artzera zijoala, bidean trena geldiarazi eta Madrillera eramán zuten polizi artean. Urrengo eguncrako, Nuntzio jaunarekin itz egin eta berehala konpondu zan okerra. Zorioneko okerra! Portugalen artu bear zuen egazkiña, Brasildik zear zijoala, suak artu baitzuen eta erre".

Bigarren agintealdia ez zan bareagoa izan. Komentu batzuetan giro txarra sortu zan, batez be Kolonbiako erlijioso batzuen artean. 1958ko apirilaren 17tik abuztuaren 28ra bitartean, A. Alberto Rodriguez Cuesta Gaztelako semeak, Jeneralaren Aholkulariak, bisita kanonikoa egin eban Nafarroako San Joakim Probintzian. Antonio Unzuetak argitaratzeko prest dituan paperetatik aldatzen ditut hona albisteok, baina euskeraz neure erara jarririk. "*Otro Visitador General castellano, enemigo de todo lo vasco*" jarri deutsa izenburutzat atal honi. Bisitaren amaieran, Probintzialarekin, hau da, A. Hipolitorekin

eta honen aholkulariekin batzartu zan. Ez eutsen ezer nabarmenik agertu... Handik lau hilabetera, bisitaren ondorioak eta ebazpenak bialdu eutsazan Probintzialari, eta bere menpeko komentu guztiei behingoan jakinazoteko agindua emon. Harri eta zur geratu zan A. Hipolito. Ebazpen guztiak ez, baina paragrafo bat bildurgarria zan: "De charitate fraterna" zan atal hori. Metraila hutsa...

Agindu honeek jaso eta behingoan idatzi eutsan A. Hipolito Probintzialak lehenengo eskutitza A. Anastasio Ballestrero Ordenako Jeneralari (1959-I-12). Bisitariaren aginduak irakurtean izan eban harridura handia eta tristura itzela erakusten dau eskutitz honetan eta, gatx larri eta iraunkorrari ihes egitekotan,



ez leukela nahi han jarten ebana bere agindupeko fraideei agertzerik. Eritxi horretan okerrik ez egiteko eta ziurrago egoteko, bere aholkularietariko biri agertu eutsela arazoa: A. Amaliori eta A. Gregoriori, biak gizon argi, zuhur eta inoren aldeko grinarik ez eukenak, eta biak be bat etozela guztiz, agindu horreek zabaldu ezkeror, Probintziaren zatiketa etorri leitekela pentsatzean.

Bigarren eskutitz baten, 1959ko urtarrilaren 23koan, A. Hipolitok luzeago idazten deutsa Jeneralari, bisitariaren argudioak banan-banan deseginaz.

Lehenengo eta behin ez dau onartzen, euskaldunak alde batean eta nafarrak bestean jartea; *“real e históricamente los navarros son tan vascos como los guipuzcoanos y vizcaínos”*. Bereizketa hau egin dabenak, egia esateko, nafarrak izan dira; handigurakoak, Probintziaren gobernuko karguak eurenganatu nahi zituenak. Hautesleak haren goranahiari huts emon deutesenean, kontu faltsu hori asmatu dabe: euskaldunak alkar hartu dabela nafarren kontra egiteko. Horreetarikoak dira azken aldi honetan Kolonbian Ordenatik urten daben guztiak, eta honeen gidariak erlijioso-bizitza beteten bape ahalegintzen ez diranak, inongo nagusik bere komunidaderako nahi ez dituanak, euren asaben hizkuntzaren arerio itzelak, eta hainbestek Ordenatik urten izana Probintziako karidade eta zuzentasunik ezaz zuritu nahi izan dabenak. Bisitaria kexa eta salaketa honerek entzuteko pres-prest izan da eta oso-osoa iruntsi ditu, holako aginduak idatzi aurretik, Probintziako nagusiei argitasuna eskatu beharrean.

Probintziala eta honen aholkulariak bat datoz uste honetan: Probintziako egoera, alkar maitasunari jagokonez, ez dala bisitariaren aginduetan agertzen dan baizen txarra; gitxiago oraindino, bisitariak esaten dituan arrazoi politikoakaitik. Kolonbian lehentxuago gauza lotsagarriak jazo badira, ez da zuzena hori guztiori Probintzia osoari leporatzea. Gainera, jazoera horreen

sustraia, eritxi politikoetan baino gehiago, goranahian eta agintaritza eskuratu nahian dago.

Azkenik, bisitariaren argudioak banan-banan desegin zituan A. Hipolitok. Ez ditugu hemen jarriko gure zeanuritarraren dialektika nondik nora joan zan, oso luze joko leuke-eta, baina bai bisitariaren agindu eta debekuak hitzez hitz. Izan be, euskeraz egitea, euskera irakastea, *Karmel* aldizkaria argitaratzea eta abar sartzen dira haren debekuen artean... Hona hemen:

a) “***(severissime prohibemus) de rebus politicis in recreatione vel in actibus communibus loqui***”. Zorrozki debekatzen dogu arazo politikoez jolasaldian nahiz komunitadeko ekintzetan berba egitea.

b) “***(severissime prohibemus) politicis quaestionibus intra vel extra claustra sese miscere***”. Zorrozki debekatzen dogu komentu barruan nahiz komentutik kanpo arazo politikoetan sartzea.

c) “***(severissime prohibemus) docere linguam vascam in domibus Institutionis et Collegiis***”. Zorrozki debekatzen dogu hezkutza-etxeetan eta ikastetxeetan euskera irakastea.

d) “***(severissime prohibemus) lectionem in lingua vasca in refectorio vel in actibus communitatis***”. Zorrozki debekatzen dogu jantokian nahiz komunitadeko ekintzetan euskeraz irakurtea.

e) “***(severissime prohibemus) editionem ephemeridis vascae cui nomen “Karmel”, vel alius cuiuscumque eadem lingua***”. Zorrozki debekatzen dogu *Karmel* deritxon euskal aldizkaria nahiz besteren bat hizkuntza horretan argitaratzea.

Onartu zituan Ordenako Jeneralak A. Hipolitok goiko aginduon aurka jarri eutsazan arrazoiak eta bere esku itxi eban hirugarren atal hori, alkar maitasunari buruzkoa, idatzi eta komentuetara bialtzea; halan be, ohar bi gehitzen ditu, bisitariak eginiko guztia atzera ez botatearren edo: euskerazko eskolak



borondatezkoak izatea, ez beharrezkoak eta *Karmel* aldizkaria-  
ren debekuari eustea. A. Hipolitok idatzi eban hirugarren pun-  
tu hori, baina Aita Jeneralak aholkaturiko puntu biak sartu ha-  
rik. Definitorioak aho batez onartu eban Probintzialak idatzita-  
koa, bialdu eban komentuetara eta inor ez zan jazo zana-  
z ohartu...

### **Ikertzailea**

Ikertzaile fina izan genduan. Erromatik alde eragin eutsen  
Espainiako gerra zibila zala-eta, eta Frantziako Agen-en bizi  
zanean ekin eutsan, erdi ustekabean, Santa Teresaren errefor-  
ma osteko hainbat ilununetan argi egiteko ahaleginari. Esan  
dogu lehentxuago, "*Nire bizitzako gora-bera batzuk*" izeneko  
idazkitik hartuta, zelan eta nondik sortu jakon ikerketa horree-  
tan sartzeko abagunea. Santa Teresa eta San Joan Gurutzekoak  
Karmeldarren Ordenaren erabarritzea burutu ostean, Santa  
Teresaren espiritua bakotxak bere erara ulertu eta aplikatu  
eben nagusiak etorri ziran. batez be A. Gracian eta A.  
Doriagan gauzatu ziran kontrako joera biok. Une horrek  
ikerketa ugari eragin ditu historialari eta teologo espiritualen  
artean. Gure Hipolito be horretan sartzera eroan eban zoriak.  
Eta sartu bazan, sartu zan; auzi horrek harrapaturik legez ikusi  
eban beti bere burua eta hil arte ez jakon grina hori iraungi.  
Lan ugari idatzi zituan horretaz. Guztien artean, 1945ean amai-  
tu eban lan luze baten barri emoten deusku Ildefonso  
Moriones historialariak *Euzkadi y el Vaticano* liburuaren kon-  
traportadan. Holan dino hitzez hitz: "*Terminó en 1945 un es-  
tudio de cerca de 400 páginas titulado P. Jérôme de la Mère de  
Dieu Gratien, Coadjuteur de Ste Thérèse. Etude historique-juri-  
dique. Estudio que no ha sido superado todavía, pero que, da-  
da la novedad de sus conclusiones, quedó inédito con el pre-  
texto de dificultades económicas*".

Ikertzaile legez, bere gogoko arloak zuzenbide kanonikoa  
eta Karmel Teresiarraren hasierako historia zituan. Julen

Urkizaren bibliografian, 21 izenburu agertzen jakuz gai horreetakoak. Gehienak *Monte Carmelo* aldizkarian argitaratuak dira; banaka batzuk *Analecta Ordinis...* eta *Epfemerides Carmeliticae* aldizkarietan argitaratuak.

## **Euskaltzale, euskal idazle eta itzultzailea**

Euskaltzale handia zan A. Hipolito. Haren garaian euskaltzale izatea eta Euskal Herria maitatzea pekatu larritzat zituen askok. Gure zeanuritarrak, ostera, ondra handitzat, bata eta bestea. Karmeldarren artean sekula be ez geuntsan entzun beste euskaldun bati erderaz egiten. Beti euskeraz; gehienetan hitanoka. Harek bere euskera egiten eban, Arratiakoa, ezelako konplexu barik. Hona zer dinoan berak honetaz *Erroma* ko *Eleizearen Araudia* liburuaren sarreratxuan:

*Nire euskerea Bizkaiko euskalkia izango. Orixe da nik ume-ume nintzala ikasia eta ondoen dakidana. Iturriari ura darion lez, niri be orrexek berez-berez eriongo. (...)*

*Orixe da nik amaren altzoan ikasia. Nire euskal irakaslerik lelengoak eta onenak, ama ta amama. Ez batak ez besteak ez ekien erderarik arean be. Baina gura eben edozer esateko ez eben erderara jo bearrik asmetan. Ezta erderarik ez ekielako ixildu bearrik be.*

*Garai artan Zeanuriko etxerik geienak nire etxearen antzekoak zirean. Erri osoa euskaldun utsa. Ama ta amamaren urrengo nire euskal irakaslerik onenak neure ume-lagunak. Ez genkien iñork euskeraz baño, baia ez gendun ixilik egoteko gogorik.*

*(...) Gure maixua (irakaslea) euskalduna zan eta erriko semea, erdalzale beroa. Erderea irakasteko alegin guztiak egiten ebazan: lelengo, goitik aginduten eutsena egin bear ebalako, eta gero, berak be erdera barik ez gintzazala iñorako buruan sartuta eukalako.*

*Idazki edo kartarik be euskeraz idatzi zeitekenik ez eban uste. Aren alegin guztiak arlo onetan alperrikoak izan zireala esan bearko. Bera be etsita egoan. Ni eskolara asi ezkeru ez eban erabilli arako elestun edo anillorik; eta eskolatik urten ezkeru ez ginduzan erderaz egiten beartuten eta guk ez gendun gogorik ixilik egoteko. Egia esateko ez neban nik Undurragako ikastolan erderarik arean be ikasi, eta ara ibiliak ez eutsan nire euskereari kalterik ekarri.*


Bere bizitzako gorabeherak kontatzen dituan idazkian, euskaltzaletasuna barru-barruan sarturik eukala dino. Antonio Unzueta ren lanetik hartzen ditut hurrengo lerrook. Hona neure erara euskerara itzulita:

Probintziala arduraturik egoan A. Hipolito Larrakoetxearen kasuaz. Zuzenbide Kanonikoko irakasle gaztea Begoñan eta Kalahorran. Euskal Herrian urte hareetan bizi zan berbizkunde kultural eta politikora oso sentibera agertzen zan. Euskal hizkuntzaz maitemindua [eta ez eukan sentimendu hori lakaripen an gordeta eukiteko, kontizu]. Euskerazko eskolak emoten eutsezan udako oporretan Begoñako teologo gazteei. Euskaldunak behartuak egozan eskola horreetara joatera eta erdaldunak ez; honeentzat, borondatezkoa zan. Probintzialaren Kontseiluak ez eban ondo ikusten jokaera hau.

Probintzialak Euskal Herriko ingurumari politiko-kulturaletik urruntzea nahi eban, Erromara ikastera bialduaz; era berean Jeneralaren idazkari egingo eban. Hau zan Probintzialaren asmoa... Aholkulariak kontrako eritxia agertu eben. Hori harentzat ondra handia zala uste eben: *“les parecía mucha honra para quien más que honra querían castigo”*. Beraz, Begoñatik atera eben, baina ez Erromara joateko, Kalahorran irakasle izateko baino. Urtebete geroago, A. Ezekiel Probintzial zala, bialdu eben Erromara ikastera.

Euskaltzaletasun horrek eraginda, gazterik hasi zan euskeraz idazten. Osperik handiena, itzulpen-lanak emon eutsen.





Grimm Anaien Ipuinak, liburu forman agertu orduko, zatika aldizkarietan argitaratzen hasi zan. Aldi haretako aldizkarietan sarri samar agertzen zan haren izenordea: "Legoaldi". *Euzko Deyan*, *Euskal-Esnalean* eta *Euzkadin* agertu ziran ipuinok. Erroman egoala, 1931tik 1936ra bitartean, *Karmengo Argia* aldizkari bialtzen zituan bere lanak; "Legoaldi" izenordeaz hona be; behin edo Larrakoetxea izenez. Erromako barriak ziran, Aita Santuaren idazkien bati buruzkoak, Elizari buruzkoak, bere gogoe-tak unean uneko gaiei

buruz... 1929an argitaratu zan *Grimm Anaien Ipuinak* liburua. Garai honetan moldatu eban bizkaierara Olabideren Itun Berria be. Lino Akesolok dinoanez, gerrateak ekarririko oke-*rez argitaratu barik gelditu zan. Geroago, ikutu batzuk eginaz, argitaratzekotan zala, Jaime Kerexetaren lanak hasi ziran ager-tzen, eta honi kalterik ez egitearren edo, ez eban bere asmoa bete. 1921ean ekin eutsan San Joan Gurutzekoaren Subida del Monte Carmelo eta Noche Oscura lanak itzultzeari, baina ez zi-tuan amaitu eta argitaratu barik gelditu ziran. A. Hipolitok bu-rutu eban itzulpen lanik handiena eta neketsuena Erroma'ko Eleizearen Araudia izan zan, Codex Iuris Canonici liburuaren itzulpena. Gazterik egindako lana hau be; 1924 inguruan amai-tua. Bere bizitzaren azken hileetan orraztu eban "Kardaberaz*

Bazkuna"n argitaratzeko asmoa agertu eutsanean, baina argitaratu orduko hil zan. Ha hil ostean argitaratua da beste hau be: *Euzkadi y el Vaticano* (1935-1936). Documentación de un episodio. Ildefonso Moriones-ek prestatua eta Erroman 1976an argitaratua. Liburu interesgarri honetan, Euskal diputatuen ordezkariak batek Vatikanorekin hartu-emonetan jarteko eta Vatikanori euren jokaeraren eta hemengo arazoaren barri emoteko, egin zituen ahaleginak kontatzen dira. Aldi horretan A. Hipolito Erroman bizi zan eta Euzkadiko ordezkarien eta Vatikanoren artean bitarteko garrantzitsua izan zan. Liburu honetan argitaratzen da A. Hipolitok euskeraz idatzirik egunerokoa be gaztelaniara itzulita; 119. orrialdetik 155. orrialdera artekoa hartzen dau; jazoera honen gorabehera guztiak kontatzen dira hor zehatz-mehatz eta egunez egun. Eguneroko honen itzulpena be A. Hipolitok berak egin da eta Ildefonso Morionesek *El pueblo vasco frente a la Cruzada franquista* (Toulouse 1966) liburutik jaso. Cervantes-en *La Tía Cornelia* eta *La fuerza de la sangre* nobelatxuak be itzuli zituan. *Euskal-Esnalea* aldizkariaren saria irabazi eben lan honeek, baina ez ziran argitaratu. Haren eliz hitzaldi luze bik bai ikusi eben argia: Andra Mari egunez bere herrian, Zeanurin, egin ebana bata, 1926an argitaratua; eta bestea, Bolibarren, Simon Bolivar-en omenezko jaietan, 1927an, elizan egin eban hitzaldia. Hau euskeraz eta gaztelaniaz dago eta urteak geroago argitaratu eban Kolonbiako gobernuak, *Oración Bolivariana* izenez.

### **Haren izaera**

Gizatasun handikoa genduan A. Hipolito. Bere sustraian tinko egoan gizona. Euskal Herriaren eta euskeraren arerioak begitan hartu eben, harek sekula be uko egiten ez eutsalako bere jatorriari, baina maitagarria zan. Oso-osokoa eta guztiz jatorra. Ordena barruan goi-karguetan jarduteko, trikimailuetara jo beharra izango ebala zirudian, baina barruak ez eutsan agintzen. Berez ez danak nekez erakutsi eikean holakorik. Sotero

Urionaguena bolibartarra (Aita Errapel) Hipolitoren ikaskidea zan. Biak benetan maite eben alkar. Aita Errapalek aholku onak emoten eutsazan bere ikaskide jakitunari. Izan be, A. Errapel gizon ona eta santua izan arren, pixka bat maltzurra be bazan. Eta esku ezkerre gehiago erabilten irakatsi nahi eutsan. Ezkerre esatean, jakina, irudizko zentzuan esan nahi dogu; bestela, pilotan ederto sartzen eban ezkerre Hipolitok, ezkertia zalako...

1959. urtean, hau idazten dauana Markinan ikasle zala, A. Errapelek bere profesako urrezko ezteguak egin zituan. A. Hipolito Probintziala be jai horretan izan zan. Elizkizunean hitzaldi gozo eta alai bat egin eutsan eta azkenean, gotzain sagaratu barriei emoten jakenez, makila handi bat emon eutsan eskura esanaz: *“accipe baculum senectutis”*, hau da, “hartu eik zahartzaroko makila”.

Legegizon eta gobernuko gizonaren azpian edo gainean, euskaldun baserritar jator-jatorra egoan. Frantziako hamar urteko epea amaitutakoan, Altzora joan zan bizi izatera. Hantxe bake-bakean egoala hautatu eben Probintzial; agintealdiko hiru urteen amaieran, barriro be Altzora joan zan, goiko beste aginduren bat etorri arte, hantxe bere baserritar maiteen artean bizi izatera. Badakigu zein pozik izaten zan han, baserritarrei arimako gauzetan laguntzen, erlijio gauzetan argi egiten, auzokoekin kontu kontari, Otsabion perretxikoak bilatzen...

Begoñan eta Markinan fruta-arbolak inausten zituan. Liburuetatik-edo ondo trebaturik ei egoan horretan, baina behin Areitioko mintegiko tekniko batekin izan ei eban eztabaida bat horretaz, bakotxak bereari tematsu eutsiaz. Azkenik, tekniko horrek, berorika eta errespetoz, baina holakoa bota ei eutsan: “berorrek elizako gauzetan asko jakingo dau, baina inausten neu naz maisu...”. Isilik gure Hipolito, baina beti ikasten da zerbait.

A. Hipolito Probintzial zan eta behin fraide batekin eztabaidatxu bat izan ei eban. Ez dakigu zer arlotakoa izango zan ez-



tabaida hori; beharbada, diziplina arlokoa...? Dana dala, batak holan egin behar zala eta besteak bestetara, bakotxak bereari eusten ei eutsan gogor. Eta urtenbide errazik ez, eta Hipolitok esan ei eban: “Eu Probintziala hazenean uste doana egingo dok, baina orain neu nok Probintziala eta neuk uste dodana egingo joat”...

Hurrengo pasadizo hau be Probintzial zala jazo zan. Zeanurira joan zan eta, jakina, bere baserrirantz, Atxondorantz. Hara heldu baino lehen, putzu antzeko bat eta leku basatsua. Laprast egin eta luze jausi zan basatzan; han mozkor baten antzera jagi ezinik egoala, pentsatu ei eban bere artean: “gure fraideak jakingo balebe Probintziala hemen basatzan bueltaka dabilela...!”.

Zeanurin Andra Mari egunean egin eban sermoia argitaratu egin zala esan dogu. Nik orain dala urte asko, Begoñan teologo nintzala, irakurri neban, hango bibliotekan dago-eta. Goitik beherako sermoia da, ondo egina; gogoan dot azkenerantz agiraka apur bat be egin eutsela bere herritarrei, seme-alabei jaten behar dan bestean emoten ez eutsielako. Gitxi janda bialtzen zituela seme-alabak eskolara; kortako ganaduak, ostera, askoz be hobeto eta adiguri handiagoaz gobernatzen zituela...

Gizon handien bizitzan jazoera xebreak eta umorezkoak be izaten dira. A. Hipolitorenean asko izan ziran. Goian jarri ditugun banakak dira horren adibidea.

Bolibarren, 1927an, Simon Bolivar Ameriketako askatzailearen omenezko jaietan holan hasi eban bere sermoia: *Laudemus viros gloriosos* (Si 44-1) “Goretzi daiguzan gizon ospetsuak”. Guretzat A. Hipolito benetan handia izan zan. Bihotz handikoa. Gorago ikusi dogunez, kontuz-kontuz ebatzi beharreko arazoak izan zituan. Horreek ez zituan hotz-hotzean eta erruki barik kanonak aplikatuaz konpontzen, bere gizatasunaz eta bihotz handiaz bidea zabalduaz baino. Otoitzean eta erlijiosoen eginbeharretan zintzo-zintzoa zan. Azken aldiak ia ez eban ikusten eta lupa baten laguntzaz jarduten eban orduen liturgia

errezatzen eta baita Karmeldar Teresiarren paperak aztertzen be. Ohartzen zan luzaroko ez zala. Hil baino egun batzuk lehenago esan eutsan fraide bati, Elizaren eta Ordenaren zerbitzuan lan handia egin ehal; bere gain ezarritako eginkizun batzuk oso gatzak zirala; poz-pezik egoala bere lan eta ebazpenak beti onartuak eta nagusien aldetik berretsiak izan zirala-ko. *Azkenik Elizaren alaba izanez bilten naz!* Esan eban Teresa Avilakoaren seme leiala.

*Luis Baraiazarra Txertudi*